



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2015ko maiatzaren 11an, arratsaldeko 19:00tan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorrotutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

171/2015 Dekretua

173/2015 Dekretua

180/2015 Dekretua

184/2015 Dekretua

188/2015 Dekretua

196/2015 Dekretua

200/2015 Dekretua

206/2015 Dekretua

220/2015 Dekretua

230/2015 Dekretua

172/2015 Dekretua

174/2015 Dekretua

182/2015 Dekretua

186/2015 Dekretua

193/2015 Dekretua

198/2015 Dekretua

204/2015 Dekretua

218/2015 Dekretua

222/2015 Dekretua

232/2015 Dekretua



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

245/2015 Dekretua
247/2015 Dekretua

246/2015 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA. PEÑASCAL COOPERATIVA ETA TOLOSAKO UDALAREN
ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ATXIKITZEKO
PROPOSAMENA

Ikusirik, 2015eko urtarrilaren 1ean, Peñascal Cooperativa eta Tolosako Udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmena, izanaz bere letraz letrazko edukia:

Tolosan, 2015eko urtarrilaren 1ean

BILDURIK

Alde batetik, Ibai Iriarte San Vicente, Tolosako alkatea, Tolosako Udaleko idazkari Jose Luis Unanue Ugaldek lagunduta.

Bestetik, Guillermo Malcorra Altuna, ordezkatzeko duelarik PEÑASCAL KOOPERATIBA, I.F.K. F-48537518 eta helbidea Tolosako Usabal Industrialdea hegoa 5C-n duena.

Hitzarmen hau formalizatzeko beharrezkoak diren gaitasun juridikoa eta jardutegia elkarri aitortuta, nork bere erakundearen izenean jardunez,

ADIERAZTEN DUTE

TOLOSAKO UDALAK eta Tolosaldeko beste Udal batzuek zenbait zerbitzu eskaintzen dizkietela ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna dutenen kolektiboari, pertsona horien autonomia handitzeko asmoz.

Zerbitzu horien artean daude "laguntza-produktuak" izenekoak zeinak honela definitzen diren: "ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako tresna, ekipamendu edo sistema oro, ezgaitasun edo/eta mendekotasun hori prebenitu, orekatu, arindu edo ezabatzeko asmoarekin".

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak programa bat dauka laguntza-produktuen hornidurarako. Hala ere, ospitaleko altak, ustekabeak eta bat-batean gertatutako mendekotasunak (iktusak, istripuak...) eta horien antzeko egoeren larritasunaren aurrean, udalek, herritarrengandik hurbil egonik, berehalako erantzuna eman dezakete, eta batzuetan aldi baterakoa, harik eta Aldundiak ebatzi eta produktuak eman arte, pertsona horiei arreta beren etxean bertan emanez.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

TOLOSAKO UDALA eta Tolosaldeko beste udal batzuk zerbitzu hau ematen ari dira modu prekarioan, baliatuta zenbait pertsonen, gehiago behar ez dituztelako, emandako produktuez.

Zerbitzu hau hartzen ari den tamaina ikusita, bai Tolosako Udalak bai Tolosaldeko beste udal batzuek uste dute beharrezkoa dela programaren gestioa hobetzea gauza hauen bitartez: laguntza-produktuen biltegi bakarra, mantentze egokia, erantzukizun zibileko estaldura...

PEÑASCAL KOOPERATIBAK, kontuan harturik bere lan-prestakuntzako jarduera, eta, zehatzago, bere Eguneko Zentroko eta gizarteratze-enpresako jarduera, laguntza eman dezake, hurbiltasunez eta kalitateaz, Tolosaldeko herritarrentzako gizarte-baliabideen eskaintzan, eta horrela erantzuna eman diezaioke bere lan-jardueraren subjektuek, alegia, baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden kolektiboek daukaten jarduera-nitxoak bilatzeko premiari...

Tolosan dituen instalazioek aukera ematen diote ezgaitasunean eta/edo mendekotasunean laguntzeko elementu-kopuru handia biltegitzeko. Era berean, metal-arloan egiten duen jarduerak aukera ematen du elementu horiek mantentzeko.

Tolosako Udalak eta Tolosaldeko beste udal batzuek interesgarritzat jotzen dute PEÑASCAL KOOPERATIBAK gizarte-bazterketako egoeran edo hala egoteko arriskuan dauden kolektiboekin egiten duen lana. Hori dela-eta, bidezkotzat jotzen dute harremanak arautzeko Lankidetzeta-hitzarmen bat egitea, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

LEHENA - ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

PEÑASCAL KOOPERATIBAK kudeatuko du ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuen biltegia, Tolosaldeko udalen jabetza dena, lan hauek egingo dituelarik: laguntza-produktu hauek bildu, biltegitatu, inbentariatu, garbitu, konpondu eta entregatu.

BIGARRENA - ZERBITZUAREN KOSTUA

Zerbitzua hiru ataletan banatuko da:

1.- Biltegitratzea, kontrola, garbiketa eta prebentziozko mantentzea.

Tolosaldeko udalek emandako inbentarioaren arabera, PEÑASCAL KOOPERATIBAK toki bat erreserbatu du inbentario horretan zerrendatutako produktuentzat. Era berean, elementu guztiak kontrolatuko ditu informatikoki.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Kontrol horrek barruan hartzen ditu gauza eginkizun hauek: prebentziozko mantentzea, ikusizko gainbegiratzea, mekanismo eta engranajeak doitzea, artikulazioak koipeztatzea eta laguntza-produktuen garbiketa orokorra.

PEÑASCAL KOOPERATIBAK Erantzukizun Zibileko aseguru bat edukiko du estaltzeko elementuen egoeraren ondorioz erabiltzaileei sor dakiekeen edozein ezbehar.

Zerbitzu honen kostua da 300 €/hil.

2.- Mantentzea eta konponketa bereziak

Elementuren batek esku-hartze berezia behar duenean, PEÑASCAL KOOPERATIBAK hornitzaile egokia bilatuko du eta TOLOSAKO UDALARI jakinaraziko dio, honek aurkeztutako aurrekontua onar dezan, hala badagokio.

Balorazioa egiten, teknikariak bilatzen eta zerbitzua enkargatzen eta ordaintzen egindako lana PEÑASCAL KOOPERATIBAK egingo du eta, behin konponduz gero, konponketaren kostua fakturatuko dio TOLOSAKO UDALARI.

3.- Etxera eramatea

Aukeran, laguntza-produktuak PEÑASCAL KOOPERATIBAKo biltegian jaso edo entregatu ahal izango dira, edo, bestela, aukera dago PEÑASCAL KOOPERATIBA arduratzeko etxera eramateaz, laguntza-produktua nola erabiltzen den azaltzeaz eta/edo jasotzeaz.

Horretarako, tarifa bat ezarri da zonaldeka, kostu desberdinekin:

- Tolosa..... 20,00 €
- Asteasu..... 35,00 €
- Berastegi.....35,00 €
- Tolosaldeko besteak.....30,00 €

Tarifa, hala behar bada berari dagokion BEZ mota gehituta, Udal bakoitzaren irizpidearen arabera ordainduko da (segun erabiltzaileak bizilekua non duen), ordaintzailea izango delarik edo erabiltzailea edo zerbitzua eskatu duen Udala.

HIRUGARRENA - GIZA BALIABIDEAK ETA MATERIAL-BALIABIDEAK

Proiektu hau garatzeko, PEÑASCAL KOOPERATIBAK honako giza baliabide eta material-baliabide hauek ditu:

- Lokal bat, 300 m koadro dituen, Usabal industrialdean. Lokal horretan aisa egin daitezke laguntza-produktuen zamlanak.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

- Oinarrizko mantentzean eta garbiketan gaituta dauden langileak.
- Biltegiaren eta entregen kontrol informatizatua.
- Erantzukizun Zibileko Asegurua, laguntza-produktuen erabileratik etor litezkeen ezbeharrak estaltzeko.
- Furgoneta bat, produktuak etxeetara eramateko.

LAUGARRENA - ERREGIMEN EKONOMIKOA

Tolosako udalak hiru hilez behin ordainduko du hitzarmen honetako BIGARREN klausulan aurreikusitako zenbatekoa. Horretarako, Peñascalek udal-zerbitzuei bidaliko dizkie, batetik, erabiltzaileen zerrenda eta, bestetik, eskatutako ordainketa dagokion hiruhilekoan izandako laguntza-produktuen mugimendua.

Tolosaldeko Udalek hitzarmen hau sinatzen denean egingo dute dagokien zenbatekoaren ordainketa. Urtean ordainketa bakarra izango da, udalerrri bakoitzeko biztanleen proportzioan kalkulaturik. Proportzioen kopuruak jasota daude dokumentu honetako 1. Eranskinean.

BOSGARRENA - DATU PERTSONALAK.

Erabiltzaileen datu pertsonalak une guztietan tratatuko dira, batetik, indarrean dagoen datuak babesteko araudia betez eta, bestetik, datuok tratatzeko baimena dutenak konfidentzialtasun osoz aritzen direlarik.

SEIGARRENA- HITZARMENA ETETEKO ARRAZIOIAK.

PEÑASCAL KOOPERATIBAK ez baditu betetzen Hitzarmen honetatik datozen obligazioak, Tolosako Udalak izango du hitzartutako zenbatekoen ordainketa etetea eta Hitzarmena indarririk gabe uztea.

ZAZPIGARRENA - HITZARMENA AMAITZEKO ARRAZIOIAK.

Hitzarmen hau amaitzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

- Klausula bat , edozein dela ere, ez betetzea.
- Indarraldia amaitzea.
- Sinatzailek adostasunez hala erabakitzea.
- Aldeetako batek uko egitea, bi hilabete lehenago abisatuta.

ZORTZIGARRENA - DESADOSTASUNAK HITZARMENAREN INTERPRETAZIOAN.

Tolosako Udaleko Gobernu Batzordeak ebatziko ditu, bide administratiboan, Hitzarmen honen interpretazioan sor litezkeen desadostasunak eta, hala behar bada, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

BEDERATZIGARRENA – INDARRALDIA.

Hitzarmen hau indarrean sartuko da bera sinatzen den egunean, baina, dena dela, LAUGARREN klausulan xedatutako erregimen ekonomikoaren ondorioak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira aplikagarri.

Kontratua indarrean egongo da 2015eko abenduaren 31ra arte.

Dokumentu hau irakurrita, eta adostasuna frogatzeko, agertutako alderdiek sinatu egiten dute, bi aletan eta ondorio bakar baterako, hasieran adierazitako tokian eta egunean.

Eta agiria aztertu ondoren, Udal Batzarrari egiten zaio hurrengo

ERABAKI PROPOSAMENA:

LEHENA:

2015eko urtarrilaren 1ean, Peñascal Cooperativa eta Tolosako udalak sinatutako lankidetzeta hitzarmenari atxikitzea.

BIGARRENA:

Alkateari behar adinako esku ematea, erabakia ahal bezain azkar garatu dadin beharrezkoak gertatzen diren egintzak burutzeko.

LAUGARRENA. 2014 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Lizartzako Udaleko 2014ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

1.- Lizartzako Udaleko 2014ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Diruzaintzako Izakin Likidoak, 2014-12-31n		91.223,79
Kobratu gabeko saldoak, 2014-12-31n		+ 19.381,86
Aurrekontuko zordunak Aurrekontuz kanpoko zordunak - Aplikatu gabeko kobrantzak	+ 12.231,42 + 7.150,44 0,00	
Ordaindu gabeko saldoak, 2014-12-31n		- 55.209,32
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak - Aplikatu gabeko ordainketak	- 44.560,08 0,00 - 10.649,24	
Diruzaintzako gerakin gordina		55.396,33
Saldo kobragaitzak	-----	
Diruzaintzako gerakin likidoa		55.396,33
Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	-----	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina		55.396,33
Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza		3.866,49
Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza		
Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik		49.423,79
Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik		-----
Aurrekontu emaitza		53.290,28
Txerta daitezkeen kreditu gerakinak		-----
Txertatu ezin diren kreditu gerakinak		75.211,68
Kreditu Gerakinak, guztira		75.211,68

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

3.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea ospatuko den hurrengo bileran.

BOSTGARRENA. 2014 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2014 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatiko erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

SEIGARRENA. MOZIOAK

JAURLARITZAK BULTZATU DUEN UDAL LEGE EGITASMOAREN AURREAN

Eusko Jaurlaritza bultzatzen dabilen Udal Lege egitasmoaren aurrean Lizartza Udalak zera adierazi nahi du:

Udal Lege egitasmo hau berandu dator. 35 urte kosta izan zaio Jaurlaritzari egitasmo hau martxan jartzea. Eta denbora honen ondoren gauzak ongi egin eta protagonismoa udalei eman ordez, presa handiekin jarri da martxan. Hainbeste denbora pasa ondoren merezi zuen lasaitasunez, modu zabalean eta sakonki zein Udal eredu nahi dugun eztabaidatzea. Horren ordez uneko interes politiko eta "presak" agindu dute. Udalen ordezkarien ahotsa zuzenean entzuteko eta udal ordezkarien ekarpenak biltzeko ez da inolako mekanismorik abian jarri. Ez da zilegi udalengan halako eragina izango duen egitasmo bat aurrera eramateko udalen parte-hartzerik ez bilatzea.

Lege egitasmoak parte-hartzeaz asko hitz egiten du. Aldiz, legearen kudeaketan lege honen onuradun/kaltetu nagusi izango direnei ez zaie parte hartzeko aukera



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

berezirik eman. Legearen lanketan ez da udalen kezka, behar edo iradokizunik jasotzeko ahaleginik egin. Legearen prozedura parlamentarioan ere ez da norabide horretan urratsik aurreikusten. Udalen ordezkariak guztia EUDELen esku uzten da. Zoritxarrez, gaur egun EUDELe ez ditu EAeko udal guztiak ordezkatzeko. Udal eta udal ordezkarien parte-hartzea ezin daiteke soilik EUDELen ekarpenetara mugatu. Udaletan lanean diharduen kidegoarengana zabalduko diren bestelako mekanismoak ezinbestekoak dira. Gainontzean, egitasmo honek hastapenetik konpon gaitza den arazoa izango du bere baitan.

LEGEAK PROPOSATZEN DUEN FINANTZIAZIO EREDUA: Udalei hainbat eskumen berri bereganatzeko aukera onartzen zaie. Aitzitik, ez da oso argi geratzen eskumen horiek guztiak garatzeko finantziario bide berriak zeintzuk izango diren. Aurreikuspen batzuk egiten dira baina oso azaletik. Horrekin udalak gaur eguneko egoera berdinean geratzen dira. Eskumenekin batera finantziarioak iturri berriak aurreikusi beharko lirake. Bata bestea gabe egiteak desoreka handiak sortzen dituelako.

Bestalde, jada udalek ez dagozkien baina garatzen dituzten eskumenak onartzen zaizkie, baina finantziario bide berririk ez. Tamalez, hori horrela hainbat udalek ezingo liokete gaur eguneko egoerari eutsi.

Ez da instituzioen arteko kuota eguneratu edo egokitzeko urratsik ematen. EAeko erakundearen arteko baliabideen banaketa Ekarpene Legearen arabera da. Bertan koefiziente bertikala eta horizontalen bidez banatzen dira baliabideak. Eusko Jaurlaritzak %70,04 jasotzen du eta gainontzeko %29,96 Aldundien eta Udalen artean banatzen da. Koefiziente horien moldaketa edo eguneratzeak ahalbideratu beharko lituzke eskumen berriak garatzeko finantziario nahikotasuna.

HIZKUNTZA: Indarrean dagoen euskaren legea oinarritzat hartuta, Udalen Lege honetan, hizkuntzaren erabileran, euskaraz hitz egiteko borondatearik ez duten pertsonen eskubideak lehenesten dira. Era berean Euskara hutsean bizi nahi duten herritarren eskubideak bortxatuz. Udalek euskara hutsez jarduteko duten borondatea indartu eta babestu egin behar da. Lege honek ez du bere horretan hori bermatzen eta horretarako aukera bikaina galtzen da. Hizkuntza eskubideen bermean aurrera urratsak eman behar dira. Urrats horiek legeak berak espresuki bildu behar ditu.

UDAL AUTONOMIAREN DEFENTSA: hitzaurrean adierazpen garrantzitsuak egiten dira norabide horretan. Ildo beretik, artikulatuak ere hainbat aipamen gordetzen ditu. Tamalez, hori guztia filosofia hutsean geratzen da. Momentu honetan badira zenbait lege sektorial tramitazioan (EAeko portuen kudeaketarako lege egitasmoa,



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Funtzio publikoko legea,...) udalen hainbat eskumen bertan behera utziko lituzketenak. Hori da ekidin beharreko jarduera. Izan ere, lege honetan autonomiaren defentsa egiteak ez du ezertarako balio gero praktikan beste lege sektorial batzuen bitartez urratzen bada. Hitzaurrean ez ezik, artikulatuaren bidez ere bermatu behar litzateke hori guztia. Udal lege honek lege marko izaera izan dezan neurriak hartu behar dira. Hartara, gerora abiarazten diren lege sektorial guztiek lege egitasmo hau errespetatu beharko lukete.

Bestalde, udalek eskumen berriak eskuratzea euren kaudimenarekin lotu nahi du legeak. Hori udalen autonomia defendatzearekin zuzenean kontrajartzen da. Udalek kudeatu beharreko eskumenen ardatzak ezin du ogasun baldintzetan oinarritu. Autonomia lokalaren defentsak beste oinarri batzuk eduki behar ditu: gertutasuna, zerbitzuen kalitatea, herritarren onura,...

Lege honek salto kualitatibo bat suposatu beharko luke. Zoritxarrez alor jakin batzuk arautzera mugatzen da. Oinarrizko legedia estatukoak izaten jarraituko du. Hortaz, EAEko udalen inguruabar guztiak arautzeko erronkari eutsi ordez, bestelako interesak ahalbideratzen dira. Bien bitartean, EAEko udalek legeri espainiarrera erremittitzen jarraitu beharko dute.

EUDEL: erakunde honen aldeko diskriminazio positiboa burutzen da lege egitasmo honetan. Lege honek udalen mintzakide bakartzat, hartu nahi du EUDEL. Aitzitik, EUDELek ez ditu EAEko udalen %40 ordezkatzen. Udalen ordezkaritza burutzen dituen elkarteez hitz egin beharko luke legeak eta ez EUDELi buruz espresuki. Udalen kontrolerako urrats garbia da horrekin guztiarekin eman nahi dena. Hori ez zaigu inondik inora bidezko iruditzen.

TOKI ERAKUNDEAK EZ DIRA AINTZAT HARTZEN: tokiko erakundeen legea izan ordez udalen lege egitasmoa bultzatu nahi izan da. Udalaz azpiko erakundeak ez dira aintzat hartzen eta horiek gure herrien antolaketa izan duten garrantzia ez da ageri. Gero eta indar handiagoa duten eskualdeen eta kuadrilen errealitateari ere ez zaio heltzen. Gainera ez da udal eta foru instituzioen artean dagoen errealitatean sakontzeko urratsik ematen.

HERRITARREN PARTEHARTZEA: herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik herritarrekin zuzenean lan egiteko bitartekoak jarri eta sakondu behar dira. Kultura berri bat sustatu behar da. Horretarako lege egitasmo hau erabakigarria izan daiteke. Legeak parte-hartzeari aipamen bat egiten badio ere, ez du behar adina baliabide jartzen horretarako. Aukerazko tresna bezala aipatzen da. Urrats



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

zehatzak emateko baino espedientea kunplitzeko barnebiltzen ditu parte-hartzeari buruzko edukiak.

Bestalde, ez da ezer egiten udal funtzionamenduan herritarren parte-hartzea ahalbideratzeko: ez plenoan, ez batzorde informatiboetan,... Herritarrentzat intrintsekoak beharko luketen hainbat eskubideren (informaziorako eskubidea, aintzat hartua izateko eskubidea,...) inguruan ez da aipamen bakar bat egiten.

EUSKAL HERRIKO BESTE INSTITUZIO PUBLIKOekin HARREMANTZEKO NEURRIAK: ez da inolako aipamen zuzenik egiten Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzio publikoekin harremanak ahalbideratzeari begira. Gure iritziz hori sekulako gabezia da. Lege egitasmo hau probestu beharko genuke harreman inter-instituzional guztiak ahalbideratzeko. Bai instituzio nafarrekin eta bai iparraldeko instituzioekin. Gaur egun hainbat egitasmo martxan dira Euskal Herriko beste herrialdeetako instituzioekin elkarlanean gauzatzen ari direnak. Horiek, berriz ere, arauketa zehatzik gabe eta, larriagoa dena, inolako bermerik gabe geratuko lirarteke.

Horregatik guztiagatik, Lizartzako Udaleko Osoko Batzarrari honako puntu hauek onartzea proposatzen zaio:

1. Lizartzako Udalak Jaurlaritzari lege egitasmoaren prozeduran epe luzapen bat egin dezala eskatzen dio, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udalei ekarpenak egin ahal izateko aukera irekiz.
2. Lizartzako Udalak, Jaurlaritzari Udalen aldetik egiten diren ekarpenak bideratu, sakondu eta eztabaidatzeko prozedura aurkeztu dezan dezan eskatzen du.
3. Lizartzako Udala, mozio honen zioen atalean aipatzen diren gaien inguruan eztabaidatu, irizpideak adostu eta ondorioak bideratzeko bitartekoak jartzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari.
4. Lizartzako Udalak, Udal zein Toki Entitateen autonomia indartzeko norabidean urratsak emateko deia egiten du. Orain artean udalak, egitura instituzionalaren azken terminalak izan dira eta egoera hori aldatzea funtsezkoa da. Subsidiaritate Printzipioa oinarritzat hartuta, herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izaki, Udalak zein gainerako Toki Entitateak sendotzearen aldeko apustua egitea ezinbestekoa da.
5. Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bideratuko zaio.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Jaurlaritzak bultzatu duen Udal Lege Egitasmoari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

TOLOSALDEA SAHARAREKIN

Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 39. urteurrenean, Tolosaldea sahararekin elkarrekin Lizartzako udalbatzari ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.- Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen ezbairik gabeko salaketa eta gaitzespen bortitzena adierazten du.

Aurten eskakizun berezia egiten du, giza eskubideen aldeko hainbat eta hainbat elkarteek egin duten moduan, indarrean dagoen nazioarteko legediari jarraiki, Hassana Aalia ekintzailearen asilo eskaera berraztertu eta onartu dadin. Era berean, gaitzetsi nahi du espainiar gobernuko barne sailak Hassana Aaliaren eskaera honi uko egin izana eta salatu nahi du kasu honetan aurreko hainbatetan bezela, espainiar agintarien konplizitatea etengabeko eraso hauekin.

2.- Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

3.- Mendebaldeko Saharako biztanleak, eurek askatasunez egokien deritzoten naziotasunari eta biztanle orori, Mendebaldeko Saharakoak barne, dagokigun mugimendu askatasuna errespetatzea eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.- Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki, Mendebaldeko Saharako urak bere baitan hartzen dituen artean, saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudenzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako deskolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

- 6.- Espainiar estatuko diputaduen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.
- 7.- Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 39. urteurrenarekin bat etorritik, 2015ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera herriko udaletxean zintzilikatzea adosten du.

Tolosaldea Sahararekin mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

TORTURAREN AURKAKO ETA GIZA ESKUBIDE GUZTIEN ALDEKO MOZIOA

Otsailaren 13an 34 urte bete ziren Joxe Arregi hil zenetik Polizia Nazionalaren eskutan 9 egun eman ondoren. Harrez geroztik tortura urtetik urtera salatu dugu, kalean eta erakundeetan. Zentzu horretan, Euskal Herrian milaka eta milaka herritarrek salatu dute tratatu txarrak jasan izana Estatuko polizia indarren eskutik.

Gainera, aurten jakin dugu Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Erresumaren aurkako kondena-epai berri bat eman duela euskal herritar batek salatutako torturak ez ikertzeagatik. Epai honekin, Giza Eskubideen Auzitegiak dagoeneko bost kondena-epai eman ditu Espainiako Estatuaren aurka, euskal herritarrek aurkeztutako tortura-salaketak ez ikertzeagatik.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herrian oso testuinguru garrantzitsu batean gaudela aintzat hartuta, non oraina eta etorkizuna eraiki nahi dugun giza eskubideen errespetuan oinarrituta, Lizartzako Udalak erabaki du, mozio honen bitartez:

- 1.-Komisarietan tratatu txarrak ahalbidetzen dituzten egun indarrean dagoen legedia behingoz eta behin betiko indargabetzeko eskatzea, Lege Antiterrorista indargabetu eta atxilotuen inkomunikazioa bertan behera utziaz.
- 2.-Funtsezkoa den eskubide honen urraketa pairatu duten pertsonen sufrimendua aitortu eta erreparatzea.
- 3.-Auzitegi Nazionalari eskatzen dio tortura eta inkomunikazioa pairatu dituzten atxilotuen kontrako prozesu judizial guztiak berrikusi eta bertan behera utz ditzala.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

4. Akordio honen berri ematea.

Torturaren aurkako eta giza eskubide guztien aldeko mozia, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ERREGISTRO ZIBILAK

Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidetzen dira hor: aitatasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak; izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea.

Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerioko (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburueta joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolatua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanaz, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

Aurtengo otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, pribatizazioak ekarriko ditu:

- 1.- 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.
- 2.- Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judizial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.
- 3.- Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2014 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburua, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri putzen (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jarduera izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.
4. Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarron datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.
5. Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeke egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatuak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.
6. Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta, Lizartza udalaren Osoko Bilkurari eskatzen dizkiogu:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- 1.- Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.
- 2.- Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.
- 3.- Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.

Erregistro Zibilari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ZAZPIGARRENA.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzitan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia